

Tokiko kultura-ondarea

Zer da Tokiko Kultura Ondarea?

Aurreko belaunaldiengandik oinordetzan hartutako eta herriari nortasuna ematen dioten **ondasunen** multzoa da.

Gainera, kontserbatzera behartuta gaude, hurrengo belaunaldiei transmititzeko.

Bi kategoriatan bana ditzakegu:

ondare materialak eta **ondare ez-materialak**.

Zeintzuk dira ondare materialak?

Ikusi eta uki ditzakegun ondare guztiak. Iraganeko adierazgarri dira. Bertan bizi ziren biztanleak ingurura, garai bakoitzera eta kultura-korronteetara nola egokitu ziren erakusten digute.

Monumentuak, eraikinak, hirigune historikoak, paisaia harrigarriak... Baserri xumeenetik luxuzko jauregi-eraikuntzara arte.

Egun, kultura-ondare materiala kontserbatzearen aldeko kontzientzia soziala oso nabarmena da, baina ondareak berritu eta mantentzea oso garestia da.

Mehatxuak

Ondare materiala oso mehatxatuta dago. Batetik urteek eta agente meteorologikoek eragindako berezko hondatzea.

Beste mehatxu larri bat gizarte-bizitza eta eragile ekonomikoen bilakaera da: espekulazioa, ezjakintasuna...

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

AGENDA 2030



 **GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK**



Zeintzuk dira ondare ez-materialak?

Kultura-ondare ez-materialak jarduerak, antzezpenak, adierazpenak, hizkuntzak, ezagutzak eta trebetasunak dira.

Baita ere, jarduera horietara lotutako objektuak eta tresnak. Komunitateek beren kultura-ondarearen zatitzat hartzen dituzte.

Kultura-ondare ez-material hau belaunaldiz belaunaldi transmititzen da. Etengabe eguneratzen da, inguruaren naturarekiko elkarrekintzari eta historiari erantzunez.

Horregatik, **Ondare bizia** ere esaten zaio. Aniztasun kulturalaren oinarria da. Ondare bizia gordetzeak nortasun-sena eman eta komunitatearen jarraipena bermatzen du.

Kultura-ondare ez-materiala ahoz aho transmititzen da komunitatearen barnean, tradizioa transmititzen duten pertsonak dauden bitartean.

Mehatxuak

Kultura-ondare ez-materiala sentibera da globalizazioaren, gizarte-eraldaketaren eta intolerantziaren indarrekiko.


Globalizazioak homogeneizatu eta estandarizatzeko joera du.

Horregatik, balio eta kultura ezberdinak berreskuratu eta zabaldu behar dira.

Euskadik oso kultura zaharra ematen dio Europako aniztasun kulturalari. Kontinentearen indoeuropar aurreko jatorriarekin lotzen da.

Kultura-ondare ez-materialtzat jotzen da Giza Eskubideekin, komunitateen, taldeen eta norbanakoen arteko errespetuarekin eta garapen jasangarriarekin bateragarria baldin bada.

Gizarteak Eraikitako kapitala eta Lana bezalako baliabideekin indartzen dira. Baina Kultura ere oso garrantzitsua da beren garapenerako.



Bizkaiko Ondare materiala

Bizkaiak hainbeste ondare duenez gero, zaila da aukeratzea:

Ondare arkitektonikoa

Landa-ondarea, ondare arkitektonikoa, hiri-ondarea, ondare industrial, eraikuntza bereziak eta esanguratsuak barne hartzen ditu. Adibidez:

Landatxo Goikoa baserria, Mungia: ondoen kontserbatu den gotiko berantiarreko baserrietako bat.

Dorretxeak: defentsa-eraikinak. Hala nola, Zamudiotarrena, San Martin elizarekin batera; egun arrantzalearen museoa den Ertzila dorrea; Martiartu dorrea; Muñatones dorrea, etab...



Urgoiti jauregia: jatorriz Galdakaon zegoen. A-8 autobidearen eraikuntza zela eta, Bizkaiko arkitektura zibilaren erakusgarrikerik interesgarriena desagerrarazteko zorian egon zen. Orain hotel bezala birgaituta dago.

Etxe merkeak: langileentzako bizitokiak. Bizkaian daukagun arkitektura industrialaren adibide ona dira. Erandio, Barakaldo, Sestao, Bilbo, Getxo...

Bizkaia Zubia: UNESCOk gizateriaren ondare izendatu zuen. Burdinazko eraikuntza ikusgarria Itsasadarraren ertzak batzen dituen alde zabalenetik: ibai-ahotik.

Guggenheim Museoa: Bilboko modernizazioaren ikurra. Erakargarritasun turistiko handia du.

Eraikuntza erlijiosoak: Bizkaia osoan arkitektura erlijiosoaren erakusgarri ederrak aurki ditzakegu. Adibidez, Bilboko Santiago eliza, edo Zenaruzako kolegiata.



Ondare arkeologikoa

Elementu historikoak, kobak, megalitoak, villak, nekropoliak, dolmenak, defentsa-elementuak barne hartzen ditu. Adibidez:

Kurtzeganeko menhirra, (Gorbeia): Euskadiko monumentu megalitikorik garrantzitsuenak. 5,40 metro ditu..

Santimamiñeko kobak, (Kortezubi): gure ondareko altxorra da. UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu zuen. Erreproduzio birtuala bisita dezakegu..

Nekropoliak: hala nola, Elorrioko Argiñetakoa, Garaiko Momoiotioko San Juan nekropolia edo Kortezubikoa, etab... Bizkaiko hileta-monumentu garrantzitsuenetakoak dira.

Arrolako Oppiduma: Bizkaiko aztarnategi protohistorikoetako bat da. II. Burdin Aroko bizimodua erakusten digu. Kantauri Ekialdeko ikusgarrienetakoa da.

Bolunburuko erromatar aurreko herrixka (Zalla): barrunbe gotortu txikia da. Ezagutzen den garai honetako barrunbe gotortu txikienetakotzat hartzen da.

Azpiegitura militarrik: Burdinazko Gerrikoa da azpimarragarriena (Sopela/Berango/Larrabetzu), Bilbo defendatzeko eraikitako multzo gotortuak: Karabineroaren begiratokia, Azkorriagako gotorlekua, XVIII. mendekoa, eta batez ere Gorlizko Billano lurmuturreko bateriak.

Ondare industrialala edo azpiegiturak

Franco-Belga konpainiaren zamatokia eta Bizkaiko Labe Garaietako bulego zaharrak, (Barakaldo): jatorrizko elementu gehienak kontserbatzen dituen meatzaritzako konpainia batzuen ekimenez eraikitako bakanetakoa da.

Errotak, burdinolak, kiskalketa-labeak, haizeolak...: burdinaren industriak eta landa-munduak antzinatik izan duten garrantzia eta lotura gogorarazten digute. Urtubiaga, El Pobal, Laukiz, Ortuella, Etxebarria.

Karobiak: Etxebarria, San Justo... Bizkaian zehar banatuta daude. Karea baserriak zuritzeko, eraikitzeko, ongarri gisa, desinfektatzaile gisa, arrautzak kontserbatzeko... erabiltzen zen antzina.

Meatzaritzako Trenbideak: Sopuertatik, Translaviña eta Alen meatzeetatik, Castro Urdiales eta Bilboko Itsasadarreko zamatokietara. XIX. mendeko azken urteetan ireki ziren eta beren ibilbideetan tunel eta zubiak daude.

Meatzaritzako beste azpiegitura batzuekin osatzen ziren: plano inklinatuak, dekantazio-putzuak, zamatokiak... Orain bide berdeak eta aisialdirako gunek dira, aldi berean gure historia ulertzen laguntzen digutenak.

“Boinas La Encartada” txapelen fabrika: Bizkaiko egoera industrialean adibide berezia da. Iraultza Industrialaren hasierara eramaten gaitu.

**Paisaia-ondarea eta ondare naturala**

Nerbioi-Ibaizabal itsasadarra: Bizkaiko garapenaren ardatza eta eragilea da, eta antzinako egituren eta egitura modernoaren multzoa osatzen du: kaiak, mineralen zamatokiak, ontziralekuak, industria-instalazioak... Iragan hurbileko zati garrantzitsua da.

Baso autoktonoak: Balgerri edo Airoko pagadiak, Gongeda edo Uxinako hariztiak, Bolintxuko haltzadiak, artadiak, etab... dira azpimarragarrienak.

Omako baso margotua: Agustin Ibarrola margolari eta eskultoreak sortua Land Art joera garaikidearen barnean kokatzen da, natura eta gizakiaren arteko harremana erakusten du.

Meatze-paisaiak: gizakiaren esku-hartze luzearen emaitza dira. Harrobiak, galeriak, putzuak... bezalako elementuak aurkitzen ditugu, edo Zugaztieta bezalako meatze-herriak.

Urdaibaiko Biosfera Erreserba: bere ondare natural baliotsu eta paisaia-dibertsitateaz gain, gunek hau atlantikoko euskal kulturaren ondare material eta ez-material guztiaren zati bat erakusten duelako nabarmentzen da (Santimamiñe, Arrolako Opidduma, Gernikako Arbola, Ertzila dorrea).

Bizkaiko kostaldea: itsaslabar, hondartza, senaia ikusgarriak eta hainbat baliabide natural aurki ditzakegu.

Bizkaiko ondare ez-materiala

Ezagutzak, balio kultural eta sozialak eta memoria kolektiboa transmititzen ditu. Hauek dira adibide batzuk:

Hizkuntza, ahozko eta idatzizko adierazpenak

UNESCOren arabera, “ahozko tradizio eta adierazpenen” esparruan era askotako hizketa-formak sartzen dira, hala nola: atsotitzak, asmakizunak, ipuinak, umeentzako kantak, kondairak, mitoak, kantuak. Adibidez:

Hizkuntza: euskara edo euskal hizkuntza Europako hizkuntzarik zaharrenetakoa da. Hizkuntza indoeuroparrak ezarri baino lehenagokoa da.

Toponimia: euskararen aztarna ugari erakusten dizkigu (ibai, mendi, herri, etxe, eta abarren izenak) horietariko asko Erdi Aroa baino lehenagokoak!

Euskarak berezitasunak ditu. Bizkaiera adibidez, Bonaparteren ondarean aipatutakoa (Biblioteka Azkue). Beste berezitasun batzuk egun pixka bat ahaztua dagoen Enkarterriko hizkeran aurki ditzakegu, Kantabriako eta Gaztelako hitzak euskararekin nahastuta.

Bertsolaritza: ahozko euskal kultura eta literaturaren berezitasunik azpimarragarrienetakoa da. Bertsolariak bertso abestuak inprobisatzen ditu aurrez ezarritako doinua, errima eta gaia errespetatuz..

Literatura: Bizkaiko gizartean idatzizko kultura-ondarea aberastu duten eta aberasten jarraitzen duten idazle eta poetak aurki ditzakegu, bai euskaraz, bai gaztelaniaz: Lauaxeta, Resurreccion Maria de Azkue, Blas de Otero, Unamuno edo Kirmen Uribe besteak beste.

Ospakizun, azoka eta jai herrikoiak

Plaza: jarduera garrantzitsu asko herriko plazan egiten dira: asteroko azoka, zaindariaren jaiak, herri-kiroletako lehiak, bertsoak. Ospatu, elkartu eta hitzartzeko gunea da. Plaza leku sinbolikoa da herritarrentzako..

Azokak: asko egiten dira urtean zehar. Produktuak..., trukatzeko balio izateaz gain, azoka jai-izaera nabarmena duen ospakizuna da.

Inauteriak Bizkaian: Bizkaian inauteriak adierazpen ugari ditu, hainbat erritu, jolas, lehiaketa, dantzaldi...

XX. mendean zehar, galduz joan ziren baina berreskuratuz joan dira.

Nabarmenenak Mundakakoak (atorrak) Durangokoak (Surrandiak)

Trapagaraneakoak (Carrascolindas)... dira.

Herri kirolak: herri kirolek landa-inguruko lan-jardueretan dute jatorria eta ondoren kirol-jarduerak bihurtu dira: aizkolariak, harri-jasotzaileak, idi-probak, segalariak, arraunlariak, pilotariak, boloak, etab.



Dantzak eta musika

Dantza: euskal kulturako folkloreaken zati garrantzitsu eta funtsezkoa da. Dantza batzuk oso zaharrak eta jatorri ezezagunekoak dira. Beste batzuk dantza zaharren berregite modernoak dira eta beste batzuk oinarri herrikoia duten koreografia berriak.

Musika: nahitaezkoa edozein ospakizunetan.

Musika-literatura tradizionala oparoa da. Egund, artista askok euskal musika mundu osotik zabaldu dute..

Musika-tresnak: Bizkaiko kultura-ondarea bereizi eta aberasten duen zerbait badago, bertako biztanleen musika-adierazpenerako sortu eta erabilitako musika-tresna autoktono zehatzak dira.

Nabarmenenak hauek dira: alboka, trikitixa, txalaparta, txistua, etab...

Artisau-teknikak eta lanbide tradizionalak

Arotza: oso lanbide garrantzitsua zen. Antzina dena zurez egiten zen. Baina metalak, plastikoak eta serie-fabrikazioak arriskuan jartzen dute lanbide hau.

Ehun-eskulangintza: gutxi ezagutu eta gutxi baloratzen den artea. Pixkanakako hondamenak oso ahula bihurtzen du. Kontserbatu eta lehengoratzeko prozedurak erabiltzea komeni da.

Hargintza: harginek harrobietako harriak atera eta lantzen dituzte eraikuntzan erabiltzeko. Lanbideko lanabesak, harrobi-markak... aurki ditzakegu.

Arrantzaleak: arrantzaleen lana aitortu behar da. Erabiltzen dituzten arrantza teknika arduratsuek baliabide naturalen jasangarritasuna bermatzen dute.

Arrantzale eta itsasoarekin lotutako beste hainbat lanbide daude: sardina-saltzaileak, itsasertzeko arotzak, bikeztatzaileak, saregileak, olanagileak..., batzuk desagertuak.

Olagizonak: industria metalurgikoak oso aspalditik duen garrantzia kontuan hartuz, honako hauek gogoratu behar ditugu: olagizonak, ikazkinak, orgagileak, eta burdin mineralarekin eta bere produkzio-prozesuarekin lotutako lanbide guztiak.

Baserritarrak: landako langileak, nehaziak/abeltzainak, ahaztuak egon dira zenbait denboran. Egun, eurretari askok, ikuspegi modernoarekin gauzatzen dute produkzioa. Beren produktuak asko baloratzen dituzte osasunaz eta ingurumenaz arduratzen diren kontsumitzaileek.

Erljioa eta mitoak

Beste mitologia klasiko batzuek ez bezala, antzinako euskal erlijio pertsonaiak Lurrean bizi dira. Zerua leku hutsa da.

Mari, emakumezko jainkoa, ama jainkosa:


Emakumezko jainko honek badu ezkontidea: Sugo (Maju)

Sortu eta hondatzeko gai den lurpeko bikotea da. Tontor sakratuetako kobetan batzen direnean, ekaitzak sortzen dituzte. Batzar horiek ostiral gauetan egiten dituzte, akelarre-egunetan.

Mari Anboto mendian bizi da. Aldizka zerua zeharkatzen du argi distiratsua itxuran beste etxera joateko, Txindoki mendira.

Zaila da kondaira honen antzintasuna jakitea. XI eta XII. mendeko Nafarroako printzesa batekin lotzen da. Beste kondaira batzuk diotenez, bere senarra Bizkaiko lehenengo jaun historikoa, Diego Lopez de Haro, zen.

Lamiak, Mairuak, Sorginak, Basajaun, Martin Txiki, Mamarro, Gaueko, Tartalo, Galtzagorriak, Herensugea... iruditeri kolektiboko beste izaki mitologiko batzuk dira.



Bizkaiko Ondarea: Kultura eta Aberastasuna

Ondareak gure historia gogorarazten digu eta
Lurreko beste herriekin batera,
munduan leku txiki baina garrantzitsua daukagula adierazten digu.
Gizateria osoaren kultura-ondareari egiten diogun ekarpena da.

Baina gure ondarea kultura eta aberastasun ekonomikoa ere bada.


Gure aisialdia bete, esperientzia pertsonal pozgarriak izan
eta kulturaren arloan aberasteko baliabide egokia da Bizkaiko
Ondareak aukera amaigabeak eskaintzen ditu.

Bere aparteko kalitatea nazioarteko erreferentzia onenen
bestekoa da. Etxetik hurbil daukagu!
Dirurik gastatu gabe ere goza dezakegu!


Gure hiri, herri, hiribildu, gune naturalak...
altxorrez beteta daude: handiak, txikiak, ikusgarriak, intimistak...
Zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta gehiago gozatzen da!

Gero eta bisitari gehiago hurbiltzen dira Bizkaiko Ondarearen
berezitasunak ezagutu eta horietaz gozatzera. Horrela,
eragile ekonomiko garrantzitsua bihurtzen da. Gainera, ideia eta esperientzien
trukea laguntzen du munduko beste leku batzuetako pertsonekin.

Bizkaiko Ondareaz eta Kulturaz gozatzeko plan batzuk




Zer ikusi Bizkaian



mybilbaobizkaia



Bilbao turismo



Euskadi Basque
Country

Gehiago jakin nahi baduzu:

Bizkaiko Kultura Patronatua
BizkaikOA
Kultura Ondarearen Zentroa

ARANZADI, Zientzia Elkartea
UNESCO
Euskal Kultura Ondarea
Euskal Kultur Erakundea

Euskomedia. Kultura Topagunea
Urtesasoak
Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa
Etxepare Euskal Institutua